



IKUSMIRA

MUGARRIAK HILARRI BIHUR EZ DAITEZEN

Hamabi mugarri, errepidea barik, bidegabekeriak dirauen denbora zedarritzen dutenak. Gehiegikeria handitu baino egiten ez duten hamabi urteotako mugarriak. Eta Karmele Solaguren, behingoz, zor zaion aitortena jasoko duen esperantza. Hamabi urte asko baitira. Baina ez da iraganeko kontua, bidegabekeriak ez baitu iraungitze datarik. Ez da iraganeko kontua oraindik ere, astero, Karmele hil zuen politika zital berak mugarri horiek zedarritzen duten errepide beretik igarotzera



Jagoba MANTEROLA eta Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

behartzen baititu milaka euskal herritar. Ez da iraganeko kontua, horregatik deitu dute aste honetan hainbat mobilizaziotara. Horregatik deitu dute, berriro ere, Bilbora, datorren urtarrilaren 14an, besteak beste, Karmele Solaguren hil zuen sakabanaketa euskal preso senide eta laguntzat bezain eutsiezina egiteko, zenbat eta gehiagoren konpromisoak orduan eta eutsiezina goa egingo baitu. Orduan eta handiagoa bihurtuko baitu mugarriok euskal preso politikoen bisi-tarien hilarri bihur ez daitezen itxaropena.

Xabier Izaga Gonzalez